

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Eleberrri baten irakurketan, <b>hipotesien formulazioaren</b> bidez modu aktiboan inplikatu, helburuaren baitako informazioa inferitu, eta testuaren esanahia norbere esperientziaren testuingurura ekarri.	<p>1.1. Emandako informazioaren baitan eskatutako <b>hipotesi justifikatuak</b> egiten ditu.</p> <p>1.2. Hipotesiak egin ahal izateko emandako <b>informazioa ulertzen eta barneratzen du.</b></p>
2. Gai jakin bati lotutako enuntziatuetan zein proposatutako berridazketetan, esandakoarekiko igorleak adierazten duen jarrera islatzeko hizkuntza baliabideak zuzen eta egoki aplikatu: <b>iritzia edo ustea adierazteko baliabideak eta zalantza adieraztekoak, kausa-ondorio erlazioa dutenak, baldintza-ondorio erlazioa dutenak.</b>	<p>2.1. <b>Iritzia emateko esapideak</b> txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.2. <b>Ziurtasuna eta zalantza adierazteko egiturak</b> txertatuz esaldiak berridazten ditu, horrek esaldian egitea eskatzen dituen aldaketak zuzen eginez.</p> <p>2.3. Aditzak zuzen jokatzeko <b>indikatiboko geroaldian, ahalerako geroaldian eta baldintza hipotetikoan.</b></p> <p>2.4. <b>Kausa-ondorio erlazioa</b> duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p> <p>2.5. <b>Aurkaritza</b> erlazioa duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan txertatzen.</p> <p>2.6. <b>Baldintza-ondorio erlazioa</b> duten egiturak barneratu ditu eta badaki horiek esaldietan adierazten.</p>
3. <b>Ahozko tertulia literarioa</b> eraiki helburu duen interakzio egoeran, diskurtso horretarako beharrezkoak diren hizkuntza baliabideak erabili, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratu hizkuntza baliabide egokiak erabiliz.	<p>3.1. Tertulia literarioetan eragin kortasunez aritzeko <b>gidoi</b> bat prestatzen du.</p> <p>3.2. <b>Tertulia literarioa</b> egiten du ikasitako hizkuntza-baliabideak erabiliz.</p> <p>3.3. Tertulia literarioa osatzen du kideekiko <b>begirunea adierazten duten esapideak</b> txertatuz.</p> <p>3.4. Esaldiak osatzen ditu ideien arteko <b>kausaa-ondorio erlazioa</b> edo <b>aurkaritza erlazioa</b> adierazteko testu-antolatzaileak erabiliz.</p>
4. Informazio soila adierazten duten enuntziatuak <b>balorazio enuntziatu</b> bilakatu zentzu positiboan zein negatiboan adierazten duten <b>adjektibo baloratiboak</b> modu kontzientean erabiliz.	<p>4.1. <b>Balorazioa</b> adierazten duten esaldiak idazten/esaten ditu.</p> <p>4.2. Idazten/esaten dituen esaldiak zentzuzkoak dira, <b>koherentzia semantikoa</b> dago adjektiboan eta gainerako esaldiaren artean.</p> <p>4.3. Adjektiboak esaldiak eskatutako <b>deklinabide kasuetan</b> zuzen idazten/esaten ditu.</p>
5. Ohar kritikoren atalak ikasi, barneratu eta horiek baliatuz landutako irakurgaiaren inguruko <b>ohar kritikoa idatzi.</b>	<p>5.1. <b>Ohar kritikoa baten atalak bereizten ditu.</b></p> <p>5.2. Esaldiak osatzen ditu ideiak behar den bezala lotuz; <b>kausaa-ondorio</b> harremanak, <b>aurkaritza</b> harremanak... zuzen adieraziz.</p> <p>5.3. <b>Ortografia</b> eta <b>deklinabidea</b> berrikusten ditu entregatu aurretik eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
6. Irakurritako liburu baten inguruko <b>ohar kritikoa</b> egin ahal izateko baliabideak eskuratu, barneratu eta aplikatu.	<p>6.1. <b>Kontrol-zerrenda</b> baliatuz ohar kritikoren egituraren atalak eta haien ordena egokia bermatzen ditu.</p> <p>6.2. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko <b>datu bibliografikoen</b> atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.3. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren <b>edukiaren</b> atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>6.4. Kontrol-zerrenda baliatuz, ohar kritikoko liburuaren <b>balorazioaren</b> atalean zuzendu beharreko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu.</p>
7. Ohar kritikoa berrikusteko <b>kontrol-zerrenda</b> talde lanean sortu eta norbere ohar kritikoren zein emanikoen berrikusketan aplikatu.	<p>7.1. Kontrol-zerrenda sortzean <b>modu aktiboan parte hartzen du.</b></p> <p>7.2. Kontrol-zerrendan adostutako <b>urratsak</b> norbere ohar kritikoa berrikustean <b>aplikatzen ditu.</b></p>
8. <b>Bizipenak</b> modu egokian <b>kudeatu</b> eta irakurritako liburu batean gertatzen direnekin <b>alderatu.</b>	<p>8.1. <b>Bizipenak</b> egoki <b>adierazten</b> ditu eta besteekin <b>alderatzen</b> ditu <b>enpatia</b> erakutsiz.</p>
9. <b>Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa</b> aplikatu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>9.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak <b>gramatikalki zuzenak</b> dira.</p> <p>9.2 Idatzizko testuetan <b>ortografiari</b> erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>